

KALEJIRA

3. KANALAK

Gure bezeroengana modu eraginkorrean iristeko, bi kanal nagusi erabiliko ditugu, bezeroen profilaren arabera: gazteak eta adinekoak. Bezero mota bakoitzak behar ezberdinak dituenenez, kanalak haien ohituretara egokituko ditugu.

Komunikazio kanalak

Gazteentzako:

Gaur egun, gazteek teknologia berriak erabiltzen dituzte erraz, eta horregatik, sare sozialak eta gure enpresaren webgunea nahiagoko dute komunikazio tresna gisa erabiltzeko.


Gure sare sozialetan, publizitatea egingo dugu gazte gehiengana iritsi ahal izateko, eta bertan, gurekin komunikatzeko aukera izango dute, eta guk eskaintzen ditugun jardueren berri eduki. Webgunea daukagula azalduko da gure sare sozialetan eta horrela, jendeak ikusi dezake zer eskaintzen dugun.

Adinekoentzako:

Adinekoengana iristeko, kalean kartelak jartzea erabaki dugu, haiek ez dutelako teknologia hainbeste kontrolatzen. Adinekoek kanpoko komunikazio tradizionalagoak nahiago izaten dituzte, eta kartelak eraginkorrak izan daitezke gure mezuak modu argi eta ikusgarrian helarazteko. Adineko bezeroek gurekin kontaktatzeko telefono zenbakia izango dute. Metodo hau eroso da haientzat, eta, aldi berean, zuzenean haiekin harremanetan jartzeko aukera emango digu. Kartelak kalean, kulturetxetan, tabernetan... ikusagi egongo dira.

Bitartekaririk Eza

Gure enpresak ez du bitartekaririk izango, eta honek bi onura nagusi ekarriko ditu: Bezeroekin zuzeneko kontaktua izango dugu, modu honetan, gure zerbitzua hobetzeko iradokizun eta iritziak zuzenean jaso ahal izango ditugu. Bestalde, kostu txikiagoa izango da, bitartekariak ez ditugulako ordaindu behar; beraz, gure baliabide ekonomikoak beste arlo batzuetan inbertitu ahal izango ditugu.



Banaketa eta salmenta kanala

Lokala eta webgunea izango dira.

Gazteentzako:

Gazteek erraz dute webgunearen bidez klaseetara apuntatzeko eta bazkide bihurtzeko. Horrez gain, merchandising-a erosteko aukera ere egongo da webgunean.

Adinekoentzako:

Adinekoentzako berriz, lokala izango da salmenta kanala. Lokalera joanda, nahi dituzten jardueretan apuntatu daitezke eta nahi duten merchandising-a erosi. Gainera, esku dirua edo txartelarekin ordaintzeko aukera egongo da.

Banaketa kanala:

Banaketa kanalari buruz, guk zuzenean egongo garenez gure bezeroekin, banaketa kanala eta salmenta kanala berdina izango dira.

